

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- Fisikoak: Boligrafoak egiteko makinaria, lehen gaiak, ekoizpen-eraikina. Bolitia egiteko makinaria ondo aztertuko dugu, eta guretzako praktikoena dena erabiliko dugu bolia eta tipexa elkartzeko. Bertan makina egiteko gure ideia ikusi eta ondoren makina hori diseinatu beharko genuke. Ekoizpen eraikina alokatu egingo dugu, eta bertan gure langileentzat eta gure lanarentzat praktikoena eta erosoena den eraikina aukeratu beharko dugu. Lekuak nahiko handia izan behar du gure produktua sortzeko eta bertan gure produktua gordetzeko.
- Intelektualak: Boligrafoak nola ekoitzi behar diren dakiten pertsonak(diseinua, funtzionamendua...) Boligrafoak nola ekoitzi eta makina sortzeko logistikarako langile bat kontratatu beharko dugu, bertan guk gure diseinua eta gure ideia esplikatuz eta akordio batera iritsi arte gure bukaerako diseinuarekin. Guretzako arrakasta handiena izango duen Bolitia eta bezeroei erakargarriena egiten zaiena ondo aukeratzeko. Beraz oso faktore garrantzitsua izango da gure enpresan lan intelektuala.
- Giza baliabideak: Langileak. Sortzaileak alde batera utzita 2 langile inguru kontratatuko ditugu. Enpresa handitzen badoa laguntza gehiago beharko dugu. Guztira 7 langile izango gara (5 langile sozioak direnak eta 2 kontratatuak). Logistikarako langile bat beharko dugu eta beste pertsona bat garraioaz arduratzen dena.
- Finantza-baliabideak: S.L bat izango garenez, 3000€ko inbertsioa egin behar dugu, bazkide bakoitzak 600€ jarriko ditugu.

